



Erandio

Begibistan!

ONDARE-IBILBIDEAK ERANDION ZEHAR





Erandio Begibistan!

Erandio Begibistan tokiko turismoko proposamen bat da udalerriko bizilagunentzat. Dena dela, ongietorria egiten die gaur egun Bilboko itsasadarrera irekita dagoen elizate honen historia eta ondarea ezagutu nahi dituztenei.

Ibilbide tematizatuen bidez, haren jatorri geologikoa, elizate gisa izandako sorrera eta Erandio industrial harrigarri eta geldiezia ezagutuko ditugu.

Udalerriaren kultura aberastasuna erakutsiko dizuten sei ibilbide.

Jantzi oinetako erosoak eta aukeratu zure ibilbidea.

Ongi etorria!



ALTZAGAKO IBARRA	4
LUTXANA SAN JOSE AUZOA	8
ENEKURI-ERANDIOGOIKOA	12
ERANDIOKO GOIERRI	16
ASTRABUDUA -LUTXANA	20
IBILBIDE GEOLOGIKOA	23



Altzagako ibarra.
Erandio garaikidearen erdigunea



1. ibilbidea. Altzagako ibarra



25 min.



1,7 Km



ZAILTASUN
TXIKIKOA

Erendio

Begibistan!

ONDARE-IBILBIDEAK ERANDION ZEHAR



Altzagako Ibarra 1860 eta 1900 artean garatu zen, José María Jadoren, lurren jabe nagusiaren, orube batzuk eta antzinako zirga-bidea, gaur egun Bilbo eta Areeta lotzen dituen errepidearen ernamuin izango zena, urbanizatu zirenean. Une horretatik aurrera, industria handiak iritsi ziren, eta landa-eremuko elizate txikia, Erandiogoikoko gunea nagusia, Altzagara jaitsi zen, Erandio garaikidea sortuz.

E!
Erendio
TURISMOA

1. ibilbidea. Altzagako ibarra



25 min.



1,7 Km



ZAILTASUN
TXIKIKOA

Tartangako arropa-garbitokitik hasiko gara; Erandion neurri higieniko-sanitarioetan izandako aldaketa irudikatzen du. Inguruan izandako azken kolera izurria XIX. mendearen amaieran gertatu zen. Biztanleen neurri higienikoak aldatu behar ziren, eta, horregatik, Udalak arropa-garbitoki hau eraiki zuen, biztanleen osasun ohiturak hobetzera bideratutako neurri ugarietako bat. Arropa-garbitokiak funtzio horri eutsi zion ia-ia 1970eko hamarkadara arte.

Hemendik gertu, eta gure paseoa aurrera jarraituz, **La Esperanza etxebizitza** multzoari begiratzeko geratuko gara, Sociedad Española de Construcciones Navales sozietatean lan egiten zuten bazkide batzuek 1923an eraikiak, kooperatiba erregimenean, eta Ángel Libano udal arkitektoak diseinatuak euskal estilo berrian. Herritarrek “etxe merkeak” deituak, Erandion XIX. mendearen amaieraz geroztik zegoen jende-metaketaren eta langileentzako etxebizitzaren gabeziaren isla dira.

Itsasadarreko errepiderantz joko dugu; hor ibili zen animaliaz tiratutako Compañía Tranvía Bilbao a Las Arenas konpainiaren lehen tranbia, itsasadarraren eskuinaldeko herriguneak konektatzen zituena. Erandiok Desertun, Lutxanan eta Axpen izan zituen geralekuak. Gune honetatik aurrera herriko industrialdera iritsiko gara, eta, ezkeraldera bira eginda, antzinako arrain-leku, ontziola eta tailer industrialen artean, **Gestamp** eraikina aurkituko dugu, automobilen osagarriak diseinatzera, garatzera eta fabrikatzera dedikatutako nazioarteko talde baten jabeagoa. Jatorriz, eraikinaren jabe Industrias Aguirena izan zen, makineria elektriko astuna fabrikatzera dedikatua. Eraikinaren proiektua Alfredo Palomarrek egin zuen, 1953an, eta klasizismo argiko atari monumental dotorearen ondorioz nabarmentzen da.

Eraikin honen aurrean **Astilleros de Murueta**ren instalazioak ikus ditzakegu, 1943an jaiotako enpresa. Ontzigitza-enpresa garrantzitsua, espezializazio handikoa, 156 metro luze den harmaila batekin. Pelikano motako garabiak udalerriko zeruan nabarmentzen dira, inguruak izandako ontzigitza tradizio luzearen enblema bihurtuta gaur egun. Metro batzuk aurrerago, **Sociedad Franco Española de Trefilería, Cabling y Tranvías Aéreos** dago, Senret eta Chandonet frantsesek 1900ean sortua; haren eraikina Filiberto Bonvillain ingeniari frantsesak diseinatu zuen. Meataritzarako, zubietarako eta beste industria batzuetarako altzairuzko kableak egiteko asmoz sortu zen enpresa, eta, pixkanaka, sektoreko liderretako bat izatera iritsi zen. Jado familiarren jabeago zen 8.000 metro koadroko lursail batean eraikia, gaur egun duen itxura 1939 eta 1967 artean Manuel eta Carlos Castellanosen egindako izaera arrazionalistako erreformen emaitza da.

Gure ibilbideko hurrengo mugarria **José Luis Goyoaga kaleko 31. zenbakiko etxebizitzaren eraikina** da, Antonio Araluce arkitektoak 1929an diseinatu, bere balkoi barroko paregabeekin. Legazpi eta San Jeronimo kaleen artean **antzinako udal azoka** aurkituko dugu, Germán de Aguirrek 1960an diseinatuak obra, hormigoizko arkitekturaren adibide, bistako hormigoiz egindako isuri bakarreko estalkiarekin, leihate handiekin eta sarrera nagusia babesten duen lauza hegalduekin. Gaur egun udalerriko kultur etxea da.



Metro batzuk aurrerago, Irailaren 23ko plazan, daude **Musika Kioskoa**, 1901ean egina burdinazko arkitekturaren jarraibide dekoratiboei jarraituz, eta **Udaletxea**, Casto de Zabala arkitektoak XIX. mendearen amaieran diseinatu; gaur egun duen fisionomia 1991n egindako berreraikuntzako esku-hartzearen emaitza da. Metroaren gaur egungo plazan arkitektura benetan apurtzaile baten adibideak ikus ditzakegu, gustu klasikoagoko beste batzuekin batera.

Azken horian artean, **Bereterretxe kaleko 2. zenbakiko etxebizitza-erakinari** erreparatuko diogu, Santos Zunzunegui arkitektoaren lana. 1935ean eraikia, hartan dorre handi angeluarra eta leihoetako eta behatokietako elementu dekoratiboak nabarmentzen dira. Handik gertu, berriz, San Agustin plazan, abangoardiako arkitekturaren adibide moduan, izen bereko **eliza** aurkituko dugu, Germán Aguirre arkitektoak 1975ean altxatua; erreferentziatzko obren egile izan zen Aguirre, hala nola Bilboko Zabalguneko azokarena eta Erandiokoarena. Bistako hormigoizko arkitektura agerian uzten duen eraikina; haren alderdirik bereziena estalkia da, paraboloidere hiperboliko forma duen hormigoizko xafla bat, teilatuaren lana egiten duena.

Hartatik metro gutxira, eta gure ibilbidea metroaren plazan amaitzetik gertu, Bilbo-Plentzia antzinako **trenbideko lur azpiko lehen geltokia** dago. Francisco Javier Sáenz de Oiza arkitektoak 1988an diseinatu, diseinu postmodernoko haren beirazko eraikin zilindrikoa nabarmentzen da.





Lutxanako San Jose auzoa.
Gune industrialia



2. ibilbidea. Lutxanako San Jose auzoa



25 min.



1,83 Km




ZAILTASUN
TXIKIKOA

Erandio

Begibistan!

ONDARE-IBILBIDEAK ERANDION ZEHAR



Bilborekiko eta Altzaga auzoarekiko muga artean Lutxana aurkituko dugu, industria historikoen eta langileen etxebizitzaren espazio hibrido eta hibridatua.

Ibilbide honek udalerriko ezezagunena den gunetara hurreratzen zaitu; ondarearen alderdien artean agerikotasun txikiena dutenak aurkitzeko jakin-mina dutenentzat pentsatua dago.

E!
Erandio
TURISMOA

2. ibilbidea. Lutxanako San Jose auzoa



25 min.



1,83 Km



ZAILTASUN
TXIKIKOA

Lutxanara iritsi gara, Lutxanako gudu ezagunaren Lutxana, lehen karlistaldiko (1833-1839) borroka hartakoa, zeinean Isabel II.aren aldeko ziren liberalen armadak Karlos V.a defendatzen zuten tradizionalistena garaitu zuen. Gaur egun, Ibaizabal-Nerbioi ibaiaren bi ertzetan lehiatu zen gudu baten kronika baino ez zaigu geratzen hartatik.

Metroak erdigunean utzi gaitu, eta, han, **La Cocinal**-en zeramikazko kartelak egiten digu harrera zeramikazko dekorazio tailerra egon zen lekuan, Manuel eta Calixto Emiliano Amannek 1917an irekia; Bilboko Particular de Costa kalera lekualdatu zuten ekoizpena gero, eta 1941ean itxi zuten, era horretako produktuen eska-riak behera egin zuenean.

Hemendik Lutxanako **antzinako eskolak** ikus ditzakegu, Ángel Libanok 1924an diseinatuak eta, plaza eskaria zela-eta, 1931n erreformatu behar izan zirenak, Pedro de Ispizua arkitektoak zuzendutako obren bitartez. Euskal estilo berrian eraikiak, zutabeen kapiteletako xehetasun plastikoen zainketarengatik eta behealdeko guneko harri modu landatzairean zizelkatuaren kuxindurarengatik nabarmentzen dira. Gaur egun, eraikin honek zenbait proposamen sozio-kultural hartzen ditu.

Eskolei atxikita, langile izaera nabarmeneko eraikin multzo bat aurkitzen dugu; horien artean, Lutxanako San Jose kaleko 2. zenbakiko etxebizitzaren eraikina nabarmentzen da, behealdean **La Estación jatetxea** aterpetzen zuena, 30eko hamarkadako urteetako tipografia ederrez errotulatu.

Handik metro batzuetara **Compañía Española de Pinturas La Internacional**-en gune handia dago, 1918an Sotero, Zubiaur y Cía.ren eskutik sortutako industria, lanean ariua 1966ra arte. Enpresa hori, ongarrí organikoen ustiapenerako sortua, Londresko "The International Paint and Compositions Co." enpresaren -1881ean sortua- pinturak, antikorrosiboak, bernizak eta antzeko produktuak Espainian saltzera ere dedikatu zen. Nabarmentzekoak dira leihoen eta inpostaren adreilu gorritzko azpadura zaindua, xehetasun dekoratiboak eta fatxada nagusiko armarría. Atentzioa ematen du, halaber, publizitate iragarki handiak ere, Ibaizabal-Nerbioiren itsasadarrean zehar aurkitu ditzakegun ezaugarri horretako adibide bakanetako bat. Compañía Española de Pinturas La Internacional gure itsasadarraren eskuinaldeko arkitektura industrialaren adibiderik ikonikoa da. Fabrikak Felix Iñiguez de Onzoñok 1959an diseinatutako etxebizitzak izan zituen, enpresek haietan lan egiten zuten langileentzako egindako etxebizitzaren adibideetako bat; Erandion horietako zenbait daude, batez ere aurreko mendearen erdialdeko urteetan eginak.

Jada itsasadarraren erriberan (antzina emakumeek, soka edo zirga batetik tiraka, txalupak ibaian gora gidatzen zituzteneko zirga-bidea izana), Lutxanako antzinako **ontzirekua** kontserbatzen da, gaur egun erabilerarik gabekoa, 1940an eraikia bi ertzak konektatzeko eta langileak egunero fabriketara eramateko.

BI-711 errepidea hartuko dugu iparralderantz, eta Asua ibaia gurutzatuko dugu Lutxanako zubi historikoaren gainean eraikitako zubi berritik. Bilbon sartu aurreko leku estrategikoa, hainbat gerratan suntsitua. Lehen karlistaldian -1836- Lutxanako Guduaren agertoki nagusia izan zen; beste ertzetik gurutzatu behar izan zuten liberalen eta Cabras, San Pablo eta Banderas mendietatik beren posizioa defendatzen zuten karlisten artekoa izan zen gudua.

Lurraldeko historia lezio honekin, eta kokagune honen garrantzian pentsatuz, BI-735 errepideko desbideraketa hartuko dugu, Asuarantz, eta **Ibáñez de Betolaza etxebizitza** multzora iritsiko gara, Germán Aguirrek eta Hilario Imazek 1955ean diseinatu eta Corona Arritola y Urquijok (Marcelino Ibáñez de Betolazaren alargunak) sustatua, handik gertu zegoen metalezko altzarietarako burdinazko hodien fabrika -1903an sortua- lan egiten zutenei ostatu emateko.

Gure urratsak Hilerria-Plaiabarri bidetik zehar berriro ere Asua ibairantz zuzenduta, beste ertzerantz igaroko gara, eta nabe industrialen artean berriro ere Lutxanarantz joko dugu, harik eta metroaren errailekin topo egin arte. Handik Bilbo-Areeta-Plentzia Trenaren **eraldaketa-zentrala** ikusten da, eraikineko zeramikazko idazkunak iragartzen duen moduan. Instalazio elektriko honen proiektua 1914an egin zuen Calixto Emiliano Amann arkitektoak. Hemendik altuera hartzen hasiko gara Enekuri Bidean zehar. Igoeran, Cabras mendia ikusiko dugu, ibaiko trafikoa eta Lutxanako zubiko pertsonen igarotzea zaintzeko baliatzen zen kokagune estrategikoa.

Enekuri gainean eta gure ibilbidea amaitzetik gertu, **Fatimako Andra Mari eliza** aurkituko dugu, Calixto Emiliano Amannek diseinatu eta 1954an inauguratua. Apaizaren etxea eta lanbide heziketako eskolarako zein parrokiako eskolarako ikasgelak ere izan zituen. Aipamen bitxi moduan, ikusten dugu kanpandorra eraikin nagusitik bananduta dagola.





Enekuritik Erandiogoikora
Asuako portuan zehar



3. ibilbidea. Enekuritik Erandiogoikora

🕒 1 h. 15'

📏 5 Km

🚶 ZAILTASUN
ERTAINAKO



Ibilbide hau Asua ibaiaren meandroen ondotik igarotzen da, San Pablo mendiaren hegaldaren eta Txorierrri haranaren artean. Nekazaritzako elementuak elementu industrialekin nahasten direneko Erandio aurkitzen da hemen, elizatearen jatorrietara iristeko.

Erandio

Begibistan!

ONDARE-IBILBIDEAK ERANDION ZEHAR



E!
Erandio
TURISMOA

3. ibilbidea. Enekuritik Erandiogoikora



1 h. 15'



5 Km



ZAILTASUN
ERTAINEKOA

Ibilbidea Enekuri ganean hasiko da, itsasadarreko trafikoa eta Lutxanako zubiko pertsonen igarotzea zaintzeko erabiltzen zen kokaleku estrategikoan; handik defendatu zuten tropa karlistek Bilboko setioa, tropa liberalei eraso eginez Lutxana hartzean, 1836ko abenduko gudu ezagunean.

Enekuritik irten eta ipar-ekialderantz joko dugu, BI-604 errepidearen gaineko pasarela zeharkatuz, eta 300 metrora, BI-3741 errepidearen bi aldeetan, **San Pablo etxebizitza multzoa** aurkituko dugu, zeinak izena kokatuta dagoen menditik hartu zuen. Bilboko Udalak egin zuen proiektua 1941ean, Erandio hiriarri atxiki berri zenean, eta etxeen diseinuaz Juan Carlos Guerra arkitektoa arduratu zen, baserrien arkitektura imitatzen duen euskal estilo berriaren bidetik. Eraiki ziren 50 etxebizitzetatik, udal etxebizitzak gerraostean izandako garapena erakusten duten dozena bat baino ez da gelditzen.

Leku honetatik Ibaizabal-Nerbioiren itsasadarraren industria gunea ikusten da, baita Erandioren zati handi bat ere: Lutxana, Enekuri, Kukularra, Arriaga, Faoeta, Asua eta Erandiogoikoa, bai eta Txorierrri harana ere, Loiuko aireportua aurrean dela.

Mendi-bideari etxebizitzen artean jarraituz errepidearen iparraldean, 300 bat metro egingo ditugu oinez eta eskuineko bidezidorra hartuko dugu, **San Pablo gotorlekura** hurreratuko gaituena, lehen karlistaldian Erandioren historiako egunik odoltsuenetako baten lekuko isil izana. 1836ko abenduaren 24ko arratsaldean, Espartero jeneralaren tropek Cabras mendiko posizioak irabazi eta itsasadarraren ezker aldearekiko komunikazioak ziurtatu eta gero, San Pablo gotorlekuari eraso zioten, azken oztopo karlista biharamunean askatuko zuten Bilbon sartu aurretik.

Geure urratsetan atzera egingo dugu mendi-bideraino, eta Faoetarantz jarraituko dugu; han, **San Pablo eta San Bernaberen ermita** aurkituko dugu, XVI. mendekoa eta Erandioko zaharrena. Xumea izan arren, Andra Mari elizari atxikitako parrokia izatera iritsi zen. Eraikinak kalte handiak izan zituen lehen karlistaldian, eta haren harrietako asko San Pablo gotorlekua eraikitzeko erabili ziren, muinoaren ganean. Ermita bisitatu eta gero, Faoeta auzoa zeharkatuko dugu, udalerriko bizigune zaharretako bat, baserriak izandakoa XVIII. mendeaz geroztik.

Bidezidorrean aurrera jarraituko dugu iparralderantz, eta, Txorierrriko korridorearen gaineko pasarela zeharkatu eta gero, BI-604 errepidea hartuko dugu Asua auzo langileari behatuz; auzo horren garapena Erandiok XX. mendearen erdialdean izandako hedapen industrialaren eta itsasadarraren ondoan espaziorik ez izatearen ondorio da. Gure ibilbidean hainbat enpresaren ondotik igaroko gara, hala nola **Indumetal** (Industrias Reunidas Minero Metalúrgicas), auzoko zaharrena, 1928an sortua eta oraindik ere **enpresaren etxebizitza** kontserbatzen duena, eta **Abrasivos Mendiola**, Andrés Mendiola Zabalak 1962an sortua, kobrea urtzearen ondoriozko zeparen bidez azalaren tratamendurako urratzailea fabrikatzeko.

Industria horiek atzean utzi eta gero, eskuineko bidea hartuko dugu, Asua ibaiarekiko paraleloa, eta 400 metro ibili ondoren Asuako Errege Portuak hartzen zuen

lekura iritsiko gara, Erdi Aroan Bizkaiko barnealdean ekoiztako burdina Kantauri itsasoraino garraiatzeko giltzarri izan zen pieza. XV. mendean nabarmendu zuen Henrike IV.a Gaztelako erregeak portu hori errege kalitatearekin, horri esker zergak ziurtatuz Koroarentzat. Asuako Errege Portuaren inguruan, zeinaren kaiaren zati bat kontserbatzen den oraindik ere, ostatu eta benten urbanismo bat eratu zen, Posta etxea eta Atxaerandio adibidez, oraindik ere ikusgai gure ibilbidean. Leku honetatik, eta BI-737 errepidearen biribilgunea gurutzatu ondoren, Torreta auzunerantz joko dugu; Asuako Dorrearen hondakinak daude han, Juan Sánchez de Asuak XV. mendean eraikia, Asuako Portuko salgaien trafikoa kontrolatzeko, handik gertu.

BI-737 errepidera itzulita, mendebalderantz joko dugu, Erandio eta Loiu arteko errepide elkargunera, handik Erandiogoikoko bidean zehar jarraitzeko **Andra Mari eliza** dagoen guneraino iritsi arte, historian zehar hainbat aldaketa izan dituen XV. mendeko tenplu gotikoa.

Haren arkitekturaren, oinetan aurreratutako dorrea eta bi aldeetako zurezko arkupeak nabarmentzen dira, baita dorrearen ondoan apuntatutako arkosoliuma ere, zeinak tenpluaren eraikuntza finantzatu zutenen hilobia aterpetzen duen –Martín Ortiz de Martiartu eta Mayor de Zamudio senar-emazteak–, haien harrizko busto banarekin. Idazkun batek identifikatzen ditu han lurperatutako bi pertsonak, eta oheko armarriek haien leinuak.

Elizaren aurrean Erandioko antzinako zentro administratiboa ikusiko dugu, **antzinako udaletxearen eta eskolen eraikinak** osatua, Casto de Zabalak 1889an diseinatua, eta handik metro gutxira antzinako hilerria, zeinaren portada neoklasikoa 1881ean diseinatu zuen Francisco Ciriaco de Menchacak.

Hemen amaituko dugu Erandioren bilakaera historikoan zehar gidatu gaituen eta udalerriaren zati garrantzitsu bat ezagutzeko aukera eman digun ibilbide hau. [Dena dela](#), 4. ibilbidearekin lotura ere egin dezakegu (Goierri. Erandioren jaiotza) eta udalerrri honen jatorriak ezagutzen jarraitu.





Goierrri.
Erandioren jaiotza



4. ibilbidea. Goierri



1 h. 15'



4,98 Km



ZAILTASUN
ERTAINEKOA

Erandio

Begibistan!

ONDARE-IBILBIDEAK ERANDION ZEHAR



Udallerriaren goiko aldean barneratzea Erandio ezezagun batean sartzea da, itsasadarreko industriaren zalapartatik urrunduta.

Gozatu bestelako Erandio hau, errota, baserri, dorre eta ermita artean paseatuz.



Erandio
TURISMOA

4. ibilbidea. Goierri



1 h. 15'



4,98 Km



ZAILTASUN
ERTAINAKOA

Euskadiko Plazan hasiko dugu ibilbidea, Erandioren edo Erandiogoikoren bihotza izana aro industrialara arte. Zalantzarik gabe, obra garrantzitsuen *Andra Mari eliza* da, historian zehar hainbat aldaketa izan dituen XV. mendeko tenplu gotikoa. Oinetan aurreratutako dorrea eta bi aldeetako zurezko arkupeak nabarmentzen dira hartan. Hiru portada gotiko dauzka, arkiboltez eta kapitul leunak dituzten zutabe txikiz osatuak. Oinetako harresian apuntatutako arkosolium batean Mayor de Zamudio eta Martín Ortiz de Martiartu senar-emazteen hilobia dago, haien harrizko busto banarekin. Idazkun batek bi pertsona horiek identifikatzen ditu, tenpluaren eraikuntza ordaindu zutenak, eta oheko armarriek haien leinuak.

Zentro honetatik gertu *antzinako udaletxearen eta eskolen eraikina* aurkituko dugu, Casto de Zabalak 1889an diseinatu zuen herriko zentro administratiboa izan zedin. Handik metro gutxira *antzinako hilerria* dago, zeinaren portada 1881ean diseinatu zuen Francisco Ciriaco de Menchacak.

Leku honetatik aurrera, eta Agirre eta Lekube J.A. plazatik abiatuta, Magdalenako errepidea hartuko dugu, belardi eta baratze artean izen bereko *santutxora* eramango gaituena. Eraikin txiki hau otoiñera eta eskaintzak egitera bideratutako gurtza-lekua da; kaperaren aurretik igarotzean txanpon bat jaurtitzea izaten zen garai batean eskaintza.

Handik 50 metro ingurura *San Kristobalen ermita* aurkituko dugu, Goierri auzoan aurkitu ditzakegun hiruretako bat. XVII. mendeko eraikin barrokoa da, baina, 1957an egindako azken erreformaren ondoren, iparraldeko harresia baino ez du kontserbatzen jatorrizko egituratik. Antzina, jaia abuztuko lehen igandean ospatzen zen, baina gaur egun uztailearen 10era aldatuta dago.

Errepidean aurrera jarraituz, *Goierriko antzinako eskoletatik* pasatuko gara, Juan Carlos Guerra udal arkitektoak 1932an diseinatuak, euskal estilo berrikoak. Magdalenako errepidearen eta Leioa-Unbe errepidearen (BI-2731) arteko elkargunera iritsi gara. Bide hau gurutzatu eta gero, Goierri-Martiartu errepidea hartu, eta hark Arruinaga eta Urederra erreken ondoan eramango gaitu, baserri zipriztinduak, horietako batzuk antzina errota izanak, Martiartu dorrean iritsi arte. Bidea bi adarretan banatuko da bertan; bata Martiartutarren Dorreraino doa eta besteak Goiko Torrerraino eramango gaitu, udalerriko zaharrena.

Lehen aukeraren alde egiten baldin badugu, bideak Gobelarrota baserriraino (Gollorta izenez ere ezaguna) eramango gaitu; han, erota bat egon zen garai batean, Urederra erreka ura baliatzen zuena, Bekoerrotatik, handik metro gutxira zegoen beste baserri batetik, zetorren kanal goratu txiki baten gaineko ubide baten bidez. 1896an Villariasko Markesaren jabeago ziren, Martiartutarren leinuko oinordekoa, baina 1968an funtzionatzeari utzi zioten.

Errotak atzean utzita, Goierri auzoko hirugarren ermitaraino iritsiko gara, *Paduako San Antonior*enera. XVII. mendean eraiki zen, Ortiz de Asua familiarentzat kapera pribatua izateko; familia hori zen Martiartuko dorrearen jabe, hala ebatzi zuelako bere testamentuan kideetako batek: Juan Ortiz de Asua Guecho y Martiartuk, hain zuzen ere. Haren seme eta oinordekoak, On Diego de Asua Guecho y Martiartuk, gauzatu zuen obra 1658an, eta, hala jasota gera zedin, honako hau dioen idazkuna

jarri zuen armariaren azpian:

ESTA ERMITA HIZO HACER POR SU DEBOCION D. DIG^o DE ASVA GVECHO y MARTTU. DVEÑO I SR. DE LAS MISMAS CASAS SIENDO DIPUDO DE VIZ^a EL AÑO DE 1658.
(*Ermita hau eginarazi zuen bere debozioarengatik D. Dig^o de Asva Gvecho y Marttuk. Etxe hauen jaun eta jabe Bizkaiko Diputatu izanik 1658. urtean).*)

Leku honetatik **Martiartutarren dorrea** miresteko aukera daukagu, monumentu izendatua 1995ean. Defentsarako eraikina da, Udondoren ibarra mendean hartzen duena. Dorrea leku estrategikoan dago, eta Plentzia eta Bilbo arteko bideak kontrolatzen ditu, barruko beste batzuez gain. Haren fisionomiak XVI. mendeko eraikina dela pentsarazten digu, zeinean erremate dekoratiboa nabarmentzen den, baina haren harresiek aurreko etapa batekoa dela pentsarazten digute, XIV. eta XV. mendekoa. Hareharrizko blokez eraikita dago, eta horietan itsas jatorria duten era tertziarioko fosilak ikus daitezke.

Geure urratsetan atzera egin eta bigarren bideari lotuta, XVII. mendeko edo antzinagoko baserri kopuru handiena aurkituko dugu, batzuk hondatuta eta beste batzuk ondo kontserbatuta. Bidean aurrera Ugarte ingurura jarraituz (“uharte” hitzetik dator, zeinak, euskaraz, bi uren arteko espazioa definitzen duen, auzoa Urederra eta Arruinaga erreken artean baitago, garrantzitsuak beste garai batean), jatorria Erdi Aroan duten bi dorre aurkituko ditugu.

Zaharrenak, **Goiko Torre** -XV. mendekoa-, izaera militarra izan zezakeen Ugarte-Urrobe bidean duen kokapenarengatik, defentsarako posizio moduan edo bidesaria kobratzeko. Dokumentuetan 1798an agertzen da lehen aldiz, Francisco de Ugarte eta Teresa de Ganari lotuta, nahiz eta eraikuntzaren data lehenagokoa izan. Oinplano angeluzuzena duen bolumen kubikoa da Goiko Torre, dimentsio txikiak dituena, bi solairutan eta ganberan banatua. Gezileiho ugari dauka, eta haren jatorrizko sarrera goratuta dago hegoaldeko partean.

Beko Torre, berriz, etxebizitzako eta nekazari-abeltzaintzako zereginetara izandako bilakaerak eta ezarritako gehigarri ugariek maskaritzen dute gaur egun, baina jatorriz XV. mendekoa da. Hala ere, XVIII. mendera arte ez zen agertu haren jabe Juan Ortiz de Ugarteri buruzko lehen aipamena, nahiz eta 1799an titularra María de Aguirre Mota izan.

Hemen amaituko da Erandioren jatorrietan zeharko ibilbidea, elizateko espaziorik landa-tarrenera gerturatu gaituen paseoa, dorrez, errotaz eta ermitaz zipriztindua. 2. autobus urbanoa har dezakezu (Martiartutorrea-Enekuri) edo zeure urratsetan atzera egin. Goierriko antzinako eskolen ondoan Bizkaibuseko geltoki bat aurkituko duzu, ibilbidearen hasierara eramango zaituena, Erandiogiokoan.





Astrabudua-Lutxana,
paseo bat zirga-bidean



5. ibilbidea. Astrabudua-Lutxana



40 min.



2,74 Km



ZAILTASUN
TXIKIKOA

Erandio

Begibistan!

ONDARE-IBILBIDEAK ERANDION ZEHAR



Ibilbide honetan, erriberako Erandion zehar paseoa proposatzen dizugu, lehorren eta itsasertzaren arteko lotura moduan erabilitako bide bat, hala merkataritzako salerosketetarako nola negozio industrialetarako, baina, batez ere, zirgatik tiraka ontziei itsasadarrean gora Bilboko hiribilduraino joaten laguntzen zieten emakumeei aurrera egitea ahalbidetzeko. Lagundu gaitzazu ibilbide honetan, eta gozatu Erandioko paisaiarik ikonikoenetako batez.

E!
Erandio
TURISMOA

5. ibilbidea. Astrabudua-Lutxana

 40 min.

 2,74 Km



ZAILTASUN
TXIKIKOA

Zer hobe ibilbide honi ekiteko **Axpeko Kaitik** itsasadar langilea behatzea baino. Hemendik Bizkaiko Labe Garaietara, ezker aldean, joateko irteten ziren ontzien etengabeko mugimendua gogora ekartzen digun behatoki paregabea.

Toki honetatik abiatuta eta itsasadarraren parean ibilita, **Axpeko antzinako harrobia** ikusiko dugu; handik erauzitakoak, XIX. mendearen amaieraz gerotik, Altzaga auzoaren zati bat betetzera bideratu ziren, besteak beste, baita itsasadarra bideratzera ere. Gaur egun eraikin berrien multzo bat ikusten dugun lekuan, Metalquímica del Nervión enpresa ezarri zen 1962an, pirita-, kobre- eta zink-errautsak kobrezko kontzentratuak eta burdin mea aberastua lortzeko baliatu zuen lehen enpresa Estatuan. Gaur egun industrialde bat dago leku horretan, eta harrobi zaharren paretetan belatz batzuk ikusten dira.

Itsasadarreko errepidean aurrera egingo dugu; espazio honetan ibili zen, 1877az gerotik, animaliaz tiratutako Compañía Tranvía Bilbao a Las Arenas konpainiaren lehen tranbia, eskuinaldeko herriguneak lotzen zituen. Erandiok hainbat geraleku izan zituen: Desertu, Lutxana eta Axpe.

Bidearen zati honetan zegoen, gutxi gorabehera, Fraidearen Harkaitza, itsasgoran ezkutuan geratzen zena eta nabigatzea arriskutsu bihurtzen zuena. 1882an, Evaristo de Churrucak, Portuko Obren Juntako zuzendariak, behin betiko irtenbidearen alde egin zuen, bideratze-dike bat sortuz, Fraidearen Harkaitza haren parte zela. Horrela sortu zen **Axpeko dartsena**, 540 metro luze den dike bat, ilabez zedarritua. Horrela, Churrucak Axpeko bihurgunea leuntzea lortu zuen, eta marinelei eta nabigatzaileei hainbeste buruhauste eragindako itsasadarraren zati hau bideratzea.

Toki honetatik abiatuta Alzagako industria gunera iritsiko gara. **Gestamp eraikina** aurkituko dugu, automobilen osagarriak diseinatzera, garatzera eta fabrikatzera dedikatutako nazioarteko taldea. Eraikina, jatorriz, Industrias Aguirena enpresarena izan zen, makineria elektriko astunera dedikatua. Alfredo Palomarrek 1953an diseinatu da, eta sarrera nagusiko atari klasizista dotorearengatik nabarmentzen da.

Eraikin honen aurrean **Astilleros de Murueta** enpresaren instalazioak ikusten dira, itsasontzien fabrika garrantzitsua, espezializazio handikoa, 156 metro luze den harmaila bat daukana. Haren pelikano motako garabiak udalerriko zeruan nabarmentzen dira, inguruak izandako ontzigintza tradizio luzearen enblema bihurtuta gaur egun. Ontziola hau 1941ean sortu zuen Tomás Ruiz de Velascok, eta 500 pertsona iritsi ziren lan egitera haren 40.000 metro koadroetan. Hemen egiten diren trabeskako ureratzeak itsasadar osoko deigarrienak dira.

Metro batzuk aurrerago, **Sociedad Franco Española de Trefilería, Cablería y Tranvías Aéreos** aurkituko dugu, Senret eta Chandonet frantsesek 1900ean sortua;

haren eraikina Filiberto Bonvillain ingeniari frantsesak diseinatu zuen. Meataritzarako, zubietarako eta beste industria batzuetarako altzairuzko kableak egiteko asmoz sortu zen enpresa, eta, pixkanaka, sektoreko liderretako bat izatera iritsi zen. Gaur egun duen itxura, arrazionalista, 1939 eta 1967 artean Manuel eta Carlos Castellanosen egindako erreformen emaitza da.

Metro batzuk aurrerago, itsasadarrera irekitzen den plaza bat aurkituko dugu, leku egokia Erandioko ontziralakua behatzeko, gaur oso gutxi erabilia, baina garai batean langileek ezker aldeko fabrika handietara joateko zuten modurik bizkor, ekonomiko eta sinpleena izana. Gune hau errepidetik igarotzen ziren edo kaian lehorreratzen ziren produktuen eta salgaien kontrolerako aduana ere izan zen. Oraindik ere kontserbatzen da itsasadarrean ikus zitezkeen *portuko garabi* urrietako bat. Puntu horretan bertan, ontziolaren aldameneko fatxadan margotu den horma-irudi handiari erreparatuko diogu. Wallrat enpresak 2007an egina, haren 72 metro koadroek itsasadarraren ur-gordialdia islatzen dute (argazki eskerga bat balitz bezala). Horrez gain, espazio honetan Jon Alberdi artista ezagunaren altzairuzko eskultura ezarri da, 8,5 metroko altuera duena, eta izenburutzat **Estelaren Barrutik**.

Erriberako Erandion zeharko gure bisitan aurrera jarraitu eta metro batzuk aurrerago, Jado kalearen kantoian, kromatismo erakargarria duen *etxebizitza eraikin* bat aurkituko dugu. Rafael Fontán arkitektoaren obra, 1940koa, nabarmentzen da inguruan, adreiluzko plaketaren eta krema koloreko itzukuaren ondorioz. Paseoan jarraituz, *Cooperativa El Siglo* aurkituko dugu, Martín Luciano Echevarrik 1873an diseinatu eta Luis Arana Goirik 1928an erreformatua; haren ezaugarri nagusia lauzekiko aurrealdea da, zeinean kooperatibaren izena dagoen idatzita.



Toki honetatik aurrera, industria jarduerak Erandioko gune honetan utzitako arrastoa ikus dezakegu, batez ere ontzizigintzaren sektorekoa. Hemen sortu zen lehen ontziola industriala, **Astilleros Ardanaz**, Rafael Olazabalek sustatua 1917an. Urte batzuk geroago, hemen bertan ezarri zen **Astilleros Celaya** -geroago, ASTACE-, proiektu enblematikoekin, Guayas eskola-itsasontzia, adibidez. Horren ondoan, eta **Errontegiko zubiaren** azpian (José Antonio Torroja ingeniariak 1977 eta 1979 artean eraikitako ingeniari-tza industrialeko obra garrantzitsuenetako bat), **Westinghouse enpresaren antzinako eraikina** altxatu zen, 750 langile izatera iritsi zena. Hozkailuak, garbigailu automatikoak, aire egokituko aparatuak, plantxa elektro-automatikoak, trenetarako osagaiak, auto baten prototipoak, autobus elektrikoak eta abar fabrikatzen ziren han, eta gaur egun hainbat enpresa aterpetzen ditu.

Aurrerago, eta jada gure ibilbidearen amaieran, Asuaren eta Ibaizabal-Nerbioiren itsasadarren elkargunetik igaroko gara. Han altxatu zen, aspaldi jada, **Lutxanako Zubi historikoa**; duen kokapen estrategikoarengatik, Bilboren sarreran baitago, suntsitu egin zuten 1836an, lehen karlistaldian. Lutxanako Guduaren agertoki nagusia izan zen; beste ertzetik gurutzatu behar izan zuten liberalen eta Cabras, San Pablo eta Banderas mendietatik beren posizioa defendatzen zuten karlisten artekoa izan zen gudu hura.

Metro gutxi batzuk aurrerago, Lutxanaren erdigunera iritsiko gara; bertan, paseoa antzinako zirga-bidetik amaitzeko aukera daukazu, edo, bestela, lotura egin dezakezu Erandio Begibistaneko ibilbideetako beste batekin





Milioika urteko paseoa.
Ibilbide geologikoa



6. ibilbidea. Ibilbide geologikoa

20 min.

2,02 Km



ZAILTASUN
TXIKIKOA

Erandio

Begibistan!

ONDARE-IBILBIDEAK ERANDION ZEHAR



Batzuetan zaila zaigu Lur planetaren jatorria ikustea. Eta are gehiago gunea gogor antropizatu baldin bada. Dena dela, Erandion, paseo honen bitartez, elizate hau geomorfologikoki nola eraiki zen ezagutzeko aukera daukagu.

E!
Erandio
TURISMOA

6. ibilbidea. Ibilbide geologikoa

🕒 20 min.

📍 2,02 Km

🚶 ZAILTASUN
TXIKIKOA

Axpe mendiaren behealdeak altxor ezezaguna gordetzen du. Gaur egun aparkalekua dena oraindik ere ikus daitekeen sumendi zahar baten nukleo trakitikoa izan zen duela milioika urte. **Harrobiko aparkalekuaren** amaieratik, Altzagarako norabidean eta trenbidearen ondoan, Axpe mendiaren hegaletara malkar pikoen bidez igotzen den bide batera iristen da. Berehala iritsiko gara 60 metro inguruko altuerara, ikusmira ederrak gozatzeko aukerarekin.

Bide hau sekretuz betea dago, harkaitz bolkaniko eta kolada multzo bat zeharkatzen baitu, oraindik ere jatorrizko egoeran mantentzen direnak, harrobiko erauzketa lanek ez dietelako eragin. Iritsi eta kraterraren oinarria inguratuko dugu, malkar pikoa daukan eta ikusgai dagoen kono bat. Ondoren, eta eskuineko lehen bidea hartzen baldin badugu, Axpe-Axpuru mendiaren gailurrera iristeko aukera izango dugu, **Hirugurutzeta** deitua; haren azpian dago kraterra.

Antzinako harrobiaren goiko bazterretik ibiliz kuarternarioko terraza horretara joango gara, eta haren ebaketa ikusiko dugu, Astrabudura igotzeko antzinako errepide gaur egun oinezkoentzako bide bihurtuan, eta han amaituko da gure ibilbidea. Azken ezusteko bat daukagu zain: **bonba bolkanikoak**, hemen gertatutako erupzioen lekukotasuna ematen duten aztarna materialak. Astrabuduko futbol zelaia eraiki zenean, hainbat tona pisatzen duten “bonba” hauek aurkitu zituzten.



INFORMAZIO TURISTIKOA

BEKOA IKASTETXEA

Desanexio kalea, 4 - 48950 ERANDIO

T. 94 417 56 16

F. 94 467 06 18

Ordutegia

Astelehenetik ostiralera: 09.30 - 13.30

AUTOBÚS URBANO

T. 901 101 366

Irteera Enekuri eta Martiartutorretik orduero.

• Astelhenetik ostiralera: 7:00 - 22:00*

• Larunbatak: 7:00 - 14:00* * Azken irteera

BIZKAI BUS

T. 902 222 265

www.bizkaia.net

METRO BILBAO

T. 944 254 025

www.metrobilbao.net

TAXI

Geltokiak: C/Bereterretxe, s/n (Bº de Altzaga)

C/Consulado de Bilbao, 17 (Bº de Astrabudua)

Radio Taxi Femade Erandio T. 944 800 909

TAXI Javier de la Fuente T. 686 573 973

BOTES

Boteros de Erandio-Axe - Av. Jose Luis Goyoaga s/n

Zerbitzua: 5:30 - 21:30 Astelehenetik ostiralera

Telefonoak: 699 381 429 - 600 875 134

colierandio@gmail.com

Linea 1	Linea 2
ENEKURI	MARTIARTUTORREA
FAETA	ENEKURI
ASUA-ERLETXETA	
ASUA/ZANGROIZ	
ETXETXIKERRA	
ELEXALDE	
ALTZAGA-ERANDIOGOIKOA 29	
ARRIAGA 2	
ARRIAGA 1	
LANDETZO-IKASTOLA	
KUKULARRA	
OBJIETA	
LEGAZPI (METRO)	
ALDAIETABIDEA	
MESO 22	
MESO / SALITURRI	
LARRAURI - MENDOTZA	
ELEXALDE	
ERANDIOGOIKOA 1	
ERANDIOGOIKOA 2	
GOIERRI ESKOLA	
QUIRÓN / SANITAS	
UPV / EHU	
MARTIARTUTORREA	
	MARTIARTUTORREA
	PINUA
	GOIKOLANDA
	MOTA
	QUIRÓN / SANITAS
	GOIERRI ESKOLA
	ERANDIOGOIKOA 2
	ERANDIOGOIKOA 1
	ELEXALDE
	LARRAURI / MENDOTZA
	MESO 61
	ITURRIBENGOA
	METRO ASTRABUDUA
	LEGAZPI (METRO)
	OBJIETA
	LANDETZO - IKASTOLA
	KUKULARRA
	ARRIAGA 1
	ARRIAGA 2
	ALTZAGA - ERANDIOGOIKOA 60
	ELEXANDE
	ASUA 7 ZANGROIZ
	ASUA / ERLETXETA
	BILBO - PLENTZIA 25
	FAETA
	ENEKURI

